

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 5 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 34 item. • Lehenengo eta bigarren ariketetan item bakoitzak 0,8 puntu balio du eta hirugarrenean 0,4 puntu. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	75 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

AUDIFONOAK: ENTZUTEA EZ DA BATERE MERKEA

Gaur egungo audiofonoak ordenagailu txikiak dira eta, lehengoak bezala, belarri-hegalean eramaten dira. Lau urteko bizia izaten dute, ongi zainduz gero, eta handik aurrera aldatzea komeni da. Audiofonoak zaintzea garesti irteten da, material berezia behar izaten delako, eta hori gutxi balitz bezala, lau urterik behin berria erosi behar da. Esan beharrik ez dago, beraz, diru asko joaten dela tresna horietan.

Espainiako Estatistika Institutu Nazionalak eman dituen datuen arabera, milioi bat pertsonak daukate gorreria eta herritarren % 10ek entzumen-arazoren bat dauka. 1.000 haurretik 2,5 gor jaiotzen dira. Presbiakusia, zahartzaroko gorreria, berriz, lehen 75 urtetik aurrerako pertsonengan agertu ohi zena, gero eta gehiago ari da agertzen 45 eta 50 urte artekoengan. Entzumena galdu duten horiei guztiei laguntzeko, urtean 150.000 audiofono saltzen dituzte Espainian.

Entzumena neurtzeko proba kualitatiboak eta kuantitatiboak egiten dituzte. Azterketa guztien artean audiometria izaten da egokiena, aukera ematen baitu jakiteko zer soinu entzuteari utzi dion pertsona batek eta entzuten dituen horiek zer-nolakoak diren. Horrez gain, beste datu garrantzitsu bat ere ematen du: pertsona horrek zer soinu kopuru jasan dezakeen. Jaiotzen garenean, 130 dezibelio (dB) arteko soinuak jasateko gaitasuna izaten dugu guztiok, baina adinean aurrera egin ahala, gaitasun hori gutxitu egiten da. Pertsona batek 30 dB-ren entzumena galtzen duenean, harekin hizketan ari denak ozen hitz egin beharko dio entzun nahi badu. Muga horretatik aurrera behar izaten da audiofona. Hala eta guztiz ere, ez dago esaterik audiofona erabiltzea derrigorrezkoa denik behin entzumen-gaitasuna neurri jakin batera heltzen denean. Horri baino garrantzi gehiago ematen zaio gorreria sozial kontzeptuari; hau da, entzumen-galera handirik izan gabe zenbait pertsonak audiofona behar izateari gizartetik baztertuta ez geratzeko.

Oro har, daukaten itxura eta erabiltzen duten teknologia hartzen da kontuan audiofonoak sailkatzean. Audiofonoak belarri-atzekoak izan daitezke, belarri-hegalaren atzean jartzen direnak, edo belarri-barnekoak izan daitezke,

neurri-neurrira egin eta entzumen-kanalaren barnean jartzen direnak. 1996. urtetik aurrera, izugarri aldatu da audiofonoen teknologia. Ordura arte, hotsa amplifikatu baino ez zuten egiten, baina urte hartatik aurrera, ordenagailu txikiak bihurtu ziren. Gaur egun merkatuan dauden audiofonoek txip bat edukitzen dute hotsak antzemateko eta erabiltzaile bakoitzaren beharretara moldatzeko. Hots apalak soilik entzuten dituenari, adibidez, hots zorrotzak entzunarazten dizkio eta alderantziz ere berdin. Gainera, hotsak prozesatzen dituztenean, traba izan daitezkeen soinu eta zaratak ezabatu egiten dituzte eta ahotsak soilik entzuten ditu pertsonak.

Bi belarrietatik gaizki entzuten duenak bi audiofono erosi behar ditu, batekin bakarrik ez baitu ongi entzungo. Gorreria belarri batean soilik agertzea ez da izaten ohikoa; gehienetan, belarri batetik bestetik baino gutxiago entzuten da, baina bietan izaten da gorreria. Bi belarrietatik gaizki entzuten duenak bi audiofono erabili behar ditu, bestela ez zaio lagungarri izango estereofonia-efektua: oreka zaintzen laguntzen du, soinua nondik datorren jakiten eta seinale akustikoak kokatzen. Zenbait pertsonak, ordea, bi audiofono behar izanda ere, bakarri erabiltzen dute, arrazoi estetikoek gain, jendeak ez pentsatzeko gorreria handia daukala edo dirua aurrezteko. Horrek kalte baino ez du egiten, estereofonia-efekturik gabe, pertsona hori galduta bezala senti daiteke lagunarte zaratatsu batean edo familia-ospakizun batean. Ez ditu ulertuko aldi berean gertatzen ari diren elkarrizketak eta uko egingo dio audiofona erabiltzeari. Hasieratik bi audiofonoak erabiltzen dituztenek, aldiz, behin ohitu eta gero, nekez egingo diote uko horiek erabiltzeari.

Orain arte aipatu ditugun audiofonoek 600 eta 3.000 euro artean balio dute. Prezioan dagoen alde hori teknologiak eragiten du itxurak baino gehiago. Audiofonoen arloa etengabe ari da berritzen eta, ondorioz, erabiltzaileek berritu egin behar izaten dituzte lau edo bost urtean.

<Revista.consumer.es>, 2009ko apirila. Egokitua.

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Zergatik da garestia audiofonoak erabiltzea?**
 - a) Bizi-iraupen laburra dutelako.
 - b) Lau urterik behin hainbat osagai aldatzea komeni delako.
 - c) Gaur egungoek barruan ordenagailu txikia dutelako.
2. **Zer ondorio atera dezakegu emandako datuetatik?**
 - a) Urtero 1.000 haur jaiotzen direla gor Espainian.
 - b) Zahartzaroko gorrieria izan dezaketenen adina jaitsi egin dela.
 - c) Hamar herritarretik 2,5ek entzumen-arazoren bat daukala.
3. **Zer aztertzen du audiometriak?**
 - a) Galdutako soinuak eta galera horren arrazoiak.
 - b) Entzuten ditugun soinuak zein entzuten ez ditugunak.
 - c) Entzuten ez ditugun soinuen kantitatea eta kalitatea.
4. **Noiz erabili behar dira audiofonoak?**
 - a) Adin batetik aurrera erabiltzea guztiz komenigarria da.
 - b) 130 dezibeliotik gora entzuteko gaitasuna galtzen denean.
 - c) Entzumen-arazoen eguneroko bizitzari eragiten diotenean.
5. **Zer motatako audiofonoak aurki ditzakegu?**
 - a) Mota bakarrekoak, itxurak eta teknologiak bateratuta.
 - b) Erabiltzailearen belarriaren tamainari egokitutakoak.
 - c) Belarriaren atzean edo barruan jartzen direnak.
6. **Zer ezaugarri dute gaur egungo audiofonoak?**
 - a) Egokitu egiten dira erabiltzaile bakoitzak behar duenera.
 - b) Txip baten bidez inguruko soinu guztiak anplifikatzen dituzte.
 - c) Entzulearen informazioa ematen dute, ordenagailu txikiak baitira.
7. **Zer gerta daiteke audiofono bakarra erabiltzen bada bi behar direnean?**
 - a) Estereofoniarik gabe, soinuaren iturria argiago dela.
 - b) Lehenengoarekin ohituta, arazo gutxiago dagoela bigarrenarekin.
 - c) Behar duenak audiofona erabiltzeari utziko diola.
8. **Zerk du eragin handiagoa audiofonoen prezioan?**
 - a) Itxurak teknologiak baino gehiago.
 - b) Teknologiak itxurak baino gehiago.
 - c) Teknologiak eta itxurak neurri berean.

2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.
Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.
Markatu testuko hutsuneak (9, 10, 11...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

AUTO PRIBATUAREN ALTERNATIBA

Garraio publikoaren hutsunea eta autoen gehiegizko erabilera bi arazo desberdin direla ematen du, baina bie irtenbide bakarra eman diete Areatzan. **9** Autoa partekatzeko proposamena interesgarria iruditu zaie herritarrei, autoen zaratak eta kutsadurak sortzen dituzten arazoez jakitun direlako. Horregatik, autoaren horrenbesteko premia ez duten pertsonentzat da programa. Era horretan, ibilgailu bat erosi beharrari aurre egiteko beste aukera bat eskaintzen du Udalak.

Zerbitzua erabili nahi dutenek 20 euroko kuota bat ordaindu behar dute urtean. Horrez gain, autoa alokatzen den ordu bakoitzeko 1,5 euro ordaindu behar dute eta egindako kilometro bakoitzeko 20 zentimo. **10** Hain zuzen, hilean 1.000 kilometrotik behera egiten dituztenentzat ekonomikoki interesgarria izan daitekeela adierazi du zerbitzuko arduradunak.

Zerbitzua erabili ahal izateko, izena eman beharra dago, ibilgailua nahi duten egun eta ordurako erreserbatu ahal izateko. Erabiltzaileak adierazi egin behar du noiz eta zenbat denborarako beharko duen autoa, zerbitzua kudeatzeko prestatu duten sistema informatiko batean. **11**

Txartel bana dute erabiltzaileek. Horiei esker, ez dute giltzarik jaso behar, eta malgutasun osoa dute autoak eguneko 24 orduetan eskuragarri izateko. Bizikleta publikoen maileguen antzeko funtzionamendua du sistemak. **12** Erabiltzaileak, barruan sartu eta autoko giltzak aurkituko ditu bertan. Erreserbatutako denbora-tarte horretan behar duenerako erabiliko du autoa. **13**

Bi urte daramatza jada proiektuak martxan eta zerbitzua erabili duten 80 areatarrek denetariko erabilerak eman dizkiote. **14** Hiruzpalau orduko irteerak izan ohi dira kasu gehienetan. Beste batzuek lanerako tresna gisa ere erabiltzen dute, supermerkatuko edo okindegiko beharginek, kasu. Azkenik, aisialdirako ere erabili izan dituzte bi urteotan, egun-pasa irteteko, esaterako.

15 Udalak antolatutako lehiaketa batean proiektu saridunetako bat izan zen, norbanakoentzat zein gizartearentzat dituen onurak kontuan hartu baitzituzten. Dirua aurrezteko modu bat izateaz gain, erosotasuna ere eskaintzen die erabiltzaileei, mantenua zein gasolina-kuotak barruan daudelako.

Arlo sozialari dagokionez, erabiltzaileek zuhurrago jokatzeko dute eta ibilgailuaren erabilera benetako premietarako uzten dute. Horrek beste arlo batzuetan izaten ditu onurak. **16** Horrez gain, gaur egun lan askotan norberak autoa izatea eskatzen dutenez, berdintasun sozialaren alde ere egiten du lan.

<Bizkaia.hitza.info>, 2014ko azaroa. Egokitua.

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

- A. Txartela autoaren beiran dagoen sentsore baten aurretik pasatu eta erreserba eginda baduzu, atak irekiko zaizkizu, ibilgailua zuretzat erreserbatuta dagoela identifikatuko duelako.
- B. Horri esker, erreserba egin duen erabiltzailearentzako gordeta geratuko da eskatutako ibilgailua eta ezingo du beste batek hartu autoa tarte horretan.
- C. Berotegi-efektua eragiten duten gas-isurketen murrizketaren alde egiten du eta erabilera sozialetarako espazio berriak sortzen laguntzen du, aparkalekuetarako espazioak berreskuratuz.
- D. *Autorik gabeko Areatza baterantz* izeneko egitasmoan izan zuen abiapuntu zerbitzu honek.
- E. Udalak hiru auto jarri ditu partekatu nahi dituzten herritarren eskura *Auzokar* programaren barruan.
- F. Askok dela eman dezake baina, auto batek dituen gastu guztiak kontuan hartuta, egunero erabiltzen ez dutenentzat aurrezteko modua izan daiteke.
- G. Ibilgailua entregatzeko ordua iristen denean, erabiltzaileak giltza berriro barruan uzi eta txartelaz atak itxiko ditu, hurrengoak ere giltza barruan aurki dezan.
- H. Txartelak erabiltzaile guztiek nahi duten unean autoa eskuragarri dutela bermatu arren, ezin ditugu ahaztu erreserba egiteko sistema informatikoak sortutako trabak.
- I. Gehienek ordu gutxi behar dituzten gestioak egiteko erabiltzen dute, erosketak egiteko edo ospitalera joateko, besteak beste.

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan, eta ez ahaztu erantzun-orrira pasatzea:

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak								

Soberakoa	
-----------	--

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orriran.

3. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

ERAKUSLEIHOAK ERE KALEAK BIZIBERRITZEKO TRESNA

Tolosa Gune Biziak egitasmoaren barruan, itxita dauden lokaletako erakusleihoak egokitu ahal izango dituzte merkatariak, beren produktuak erakutsi eta kaleak biziberritzeko. Kataluniako Olot herritik jaso du ideia Tolosako Udalak, eta duela bi urte inguru abian jarri zuen *Tolosa Merkat* programaren emaitza onak **17** dute orain Udala proiektu berri honetan sartzera, gune batzuetako negozioak eta kale-bizitza berreskuratzeko helburuz.

Eguneroko kale-bizitza galdu duten guneak **18** zituzten *Tolosa Merkat* programarekin, eta hutsik dauden lokaletara begira jarri dira egitasmo berriarekin. Hutsik dauden lokalen erakusleihoak erabiltzeko **19** izango dute herriko merkatariak beren produktuak erakusleio horietan ere erakusteko. Herri guztiari begirako proiektua den arren, hasiera batean bakarrik Alde Zaharrean izango da. Hasteko, Errementari kaleko goiko partean **20** da Udala. Argi dago kale horrek erabat galdu duela jarduera komertziala eta herrikoak ez direla gaur egun bertatik pasatzen, baina biziberrituko balitz, jendea **21** igaroko litzateke kale horretatik.

Lokal hutsen jabeekin **22** bat egin ondoren, bertaratuek oso begi onez jaso zuten proiektuaren berri. Horrela, Udala merkatarien eta jabeen arteko **23** izango da, eta merkatariari, hartu duen erakusleio hori behar bezala egokitu eta ondu dezan, seiehun euroko **24** eskainiko dio. Lokalen jabeek, bestalde, ehuneko berrogeita hamarreko deskontua izango dute Ondasun Higiezinaren Gaineko **25**. Gainera, lokala bera ere erakargarriagoa izango da, etorkizunean norbaitek erosi nahi badu. **26**,

jabeontzat ere oso onuragarria da. Gauzak horrela, *Tolosa Gune Biziak* egitasmoak bi onuradun izango ditu. Merkatarien onurarako eta lokalen jabeen onurarako izango da eta, **27**, herri osoarentzat.

Tolosako Udalak hamabi mila euroko **28** du proiektua garatzeko, eta diru hori amaitu arte zabalik izango da izen-ematea. Tolosako Udaleko garapen ekonomikoaren sailean egin beharko dira **29**, bertaratuta, telefonora deituta edo *enplegua@tolosa.eus* helbide elektronikora mezu bat idatzita. **30**, egunotan herrian zehar proiektuaren nondik norakoak biltzen dituen esku-orria ere banatzen ari dira.

Oraingoz Alde Zaharreko erakusleihoak biziberritzeari eman nahi dio **31** Udalak, baina horrek ez die herriko beste lekuetako merkatariari proiektu berrian parte hartzeko aukerarik kenduko. Areago, beste merkatariak beren produktuak Alde Zaharreko erakusleioetan jartzea ere Udalaren ideietako bat da eta, **32**, Alde Zaharrekoek besteen erakusleioak erabiltzea.

Tolosako **33** komertzialak berreskuratzeko bidean, azkenik, aipatzekoa da proiektuan parte hartuko duten erakusleio guztiek estetika bateratua zainduko dutela, binilo batzuen bitartez, eta horrela jabeek lokal horiek negozioak martxan jartzeko **34** daudela jakinaraziko dute.

<Ataria.info>, 2015eko martxoa. Egokitua.

3. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

- 17.a) bultzatu
b) bildu
c) atzeratu
d) gomendatu

- 18.a) identifikatuta
b) nahasita
c) zabalduta
d) ekoitzita

- 19.a) premia
b) gabezia
c) aukera
d) ohitura

- 20.a) saiatuko
b) bilduko
c) ohartuko
d) aurkeztuko

- 21.a) urduriago
b) goizago
c) sarriago
d) indartsuago

- 22.a) lehiaketa
b) bilera
c) mintegi
d) sailkapen

- 23.a) ibiltaria
b) salataria
c) ikuskaria
d) bitartekaria

- 24.a) diru-laguntza
b) interesa
c) bermea
d) aldea

- 25.a) Jardueran
b) Zergan
c) Baimenean
d) Eskabidean

- 26.a) Bestela
b) Berriz
c) Hala ere
d) Beraz

- 27.a) behintzat
b) adibidez
c) badaezpada
d) azken finean

- 28.a) isuna
b) salmenta
c) aurrekontua
d) ordaina

- 29.a) arauak
b) tramiteak
c) iruzkinak
d) biderketak

- 30.a) Batez beste
b) Esan bezala
c) Horrekin batera
d) Horren ondorioz

- 31.a) fidagarritasuna
b) larritasuna
c) xehetasuna
d) lehentasuna

- 32.a) berez
b) alderantziz
c) horretarako
d) batetik

- 33.a) harreman
b) ikur
c) sarrera
d) eremu

- 34.a) erabakigarri
b) eskuragarri
c) aldagarri
d) onuragarri

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- **Ez jarri zure izen-abizenik; asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Administrazioko langilea zara. Udako ordutegia hasi da eta goizez baino ez duzu lanik egiten. Azken bolada honetan, zure lantokian lan asko daukazue eta arduradunak pare bat egunetan arratsaldez ere lan egiteko eskatu dizu.

Egoera luzatzen ari dela ikusita, idatz iezaiozu eskutitza arduradunari arratsaldez lan egiteak sortzen dizkizun eragozpenak azaltzeko, arazoari lehenbailehen irtenbidea emateko eta egindako lanaren truke zerbait eskatzeko.

2. ariketa

Gaia kontuan hartuta, iritzia eman behar duzu herriko aldizkarian, *Herritarren txokoa* sailean.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Azken hilabeteetan lapurreta batzuk izan dira herrian. Hori dela eta, Udalak zenbait kaletan hainbat bideo-zaintzako kamera jarri nahi ditu. Herritar batzuek ez dute begi onez ikusten Udalak hartu nahi duen neurria.

Idatzi neurri horri buruzko zeure iritzia herriko aldizkarian eta egin beste proposamen bat herritarren segurtasuna bermatzeko.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «Audifonoak: entzutea ez da batere merkea»

1.	A	2.	B	3.	B
4.	C	5.	C	6.	A
7.	C	8.	B		

■ **2. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.

■ **Irakurgaia:** «Auto pribatuaren alternatiba»

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak	E	F	B	A	G	I	D	C

Soberakoa	H
-----------	---

■ **3. ariketa:** hutsuneak bete.

■ **Irakurgaia:** «Erakusleihoak ere kaleak biziberritzeko tresna»

17.	A	18.	A	19.	C
20.	A	21.	C	22.	B
23.	D	24.	A	25.	B
26.	D	27.	D	28.	C
29.	B	30.	C	31.	D
32.	B	33.	D	34.	B